


6.- LATERRI BATUAK



Idaz-lanen sail onetan argitaratu doguzan lanetan txiro bizi dan jentea ikusi dogu: Lurraren Ipar-Buruan, Siberia'n, Ozeania'ko ugarte ugarietan... Eldu da orain lurralde aberats eta aurreatu bateri so egiteko ordua. Begiratu dagiegun Ipar Ameriketako Laterri Batuak (USA).

Izugarria da europatarak, batez be anglo-saxoiak, an lortu daben aurrerapena. Zergaitik? Ego-Ameriketan lortu ez dan aurrerapen aundi ori, zergaitik lortu da Iparraldean?

Tokirik geienetan izaten da ipar-aldea aberatsagoa egoaldea baiño eta Laterri Batuetan beste zio bat be ikusten da: Europa'tik joandako endak eta bertakoak ez dirala nastatu, inditarrek euren "erreserbetara" baztertu dabez. Ego-Ameriketan osteria endak nastatu egin ziran eta urten daben "kriolloak" ez dira aurrerapenerako egokiak. Eta, gaiñera, an be geratu dira inditar baztertuak.

Berrogeta bederatzi laterri alkartu ziran Ipar-Ameriketan, Washington uriburu eta lendakariaren bizileku dala. Baiña itzaltasun aundiz alkartu ziran, laterri bakoitxak bere nortasuna ta agintariak be zaintzen dauzala.

New York edo York Barria da uririk aundiena eta ondo eratua: Kale zuzen eta egokiak, zenbakidunak. Esaterako errez ulertzen dabe non dagon 45n. kalea ta bertan 7n. ibilbidea.

Ipar-Ameriketan dana da aundia: Lurrez Europa guztiaren bestekoa da (Orregaitik ikusi dau Europa'k be laterriak batubearra), 4.0000 m.'tik gorako mendiak daukaz urrean, Misisipi ibaiak eta Misuri onen errekeak 6.800 km.'ko bidea egiten dau eta munduko luzeena da.

Erritarrak eroso bizi dira, naizta torre bikoitxetan jazo ezkeror urduritasuna errez agertu. Iruterik batek dauke kotxea, telefonoak ugari....

Lendik ara joanak inglesak, italiarrak, errusiarak, alemanak, poloniarak eta txinatarak izan ziran eta orreïn gaiñera 15 milloi dira Afrika'tik jopu lez etorri ziran

baltzen ondorengoak.

Sortaldeko beizaiñak 100 milloi bei daukez, Boise eta inguruetan artegi ikaragarriak eta lurgintzarako daukezan aurrerapenak eta erreztasunak aundiak dira.

Antxe dagoz munduko bidezabal eta trenbiderik onenak, baiña naiago izaten dabe egazkiñetan ibilli. Ain aundiak dira egin bear dabezan bideak! An dana dago urrin, asago. 6.000 egazkin-zelai baiño geiago daukez.

Ezagunak doguz etxe "zeru-urratzailleak" edo "rascacielos"ak. Olako baten 5.000 lagun bizi leitekez.

Baiña Amerika barri onen ondoan, itxas-ontzi zarrak an dagoz eta basoeran "narru-gorriak" edo "pieles rojas" bizi dira. Ara joandako "ispanoak" be beti ez dira bizi olako egoeran.

Begitu zelako biziera eta zelako jakintza sortu diran 200 urte oneitan!

OLAZAR'tar Martin'ek